

**1984**

Jatorrizko izenburua: *1984*
 Egilea: George Orwell
 Itzultzailea: Oskar Arana
 Argitaratze urtea: 2006
 Argitaletxea: Txalaparta

MIKEL GARMENDIA

XX. mendearen lehen erdian idatzitako antiutopia (edo distopia) ospetsuena dugu *1984* eleberria. Estatu nonahikoak nahitaez betearazten dizkie legeak eta arauak alderdi totalitarioko kideei, doktrinamenduaren, propagandaren, beldurraren eta zigor kupidagabearen bitartez. Eleberri honek eman zien sarbidea gerora hain ezagun bihurtutako hainbat kontzepturi, hala nola diren *Anaia Handia*, 101. gela, pentsamenduaren polizia eta hizketa berria, hots, ingelesaren egokitzapen bat, lexikoa murriztu eta eraldatzen duena -hizkuntzan ez dagoenik ezin da pentsatu-. Hainbaten iritiz, agerikoak dira egungo gizartearen eta *1984*koaren arteko antzekotasunak, eta hala esaten da jadanik gizarte orwelliarrean bizi garela, jokabide totalitario eta zapaltzaileak gauzatzen direneko gizartean, alegia. Egundokoa izan da, alde horretatik, eleberriak gaur egunera arte izandako eragina, Aldous Huxley-ren *Bai mundu berria* edo Ray Bradbury-ren *Fahrenheit 451* eleberrien adinakoa edo baita, ziurrenik, handiagoa ere.

Winston Smith dugu pertsonaia nagusia (Winston izena Winston Churchill-ekin dago lotua eta Smith deitura, berriz, deiturarik arruntena da ingelesaren artean). Winstonek Egiaren Ministerioan egiten du lan (lau dira Ministerioak: Egiarena, Maitasunarena, Bakearena eta Oparotasunarena), eta haren egitekoa Historia etengabe berridaztea eta heroiak asmatzea da. Londresen bizi da balizko 1984. urtean. Garai hartan hiru superpotentzian dago banatua mundua: Eurasia (neoboltxebismoa), Ekialdeko Asia (heriotzaren adorazioa) eta Ingsoc ("sozialismo ingelesa").

Haren existentzia bera zalantzazkoa izanik ere, *Anaia Handia* da buruzagi bakarra, gizartearen begiralea, jainkoa eta epaile gorena. Berak haragitzen ditu Alderdiaren idealak, alderdi bakar eta ahalguztidunarenak, etengabe begira baitago eta haren kide izan behar baitute pertsona guztiek, proletarioek izan ezik, horiek ez baitute eskubiderik ere eta Poliziak ez baititu ia begiratu ere egiten: aukera ematen zaie askatasun intelektuala izateko, ez baitute intelektorik ere".

Hiru urte emango ditu ministerio horretan lanean eta jabetzen da egiten duen lana bere gobernuaren fartsa handiaren zati bat besterik ez dela. Hala, neska gazte errebelde batekin maitemindu eta ahal bezala ekiten diote erresistentziari. Alferrik, ordea. Mendean hartuko du Winston ere sistemak eta halaxe helduko gara amaiera tristera. Hantxe dago Winston taberna batean telebistari begira, berri manipulatu bat entzuten: "Gin usainezko malko bana isuri zitzaion sudurraren alde bietatik. Baina ongi zen, ongi zen guztia, borroka amaiturik zen. Irabazi egin zuen bere buruaren kontrako borroka. Maite zuen Anaia Nagusia".

Aparteko iruzkina merezi du eleberriaren eranskin gisa eskaintzen zaigun *Hizketa berriaren printzipioak* izeneko atalak. Zehatz-mehatz azaltzen zaigu zertan datzan arestian aipatu dugun lexikoa murriztu eta eraldatzeko helburua eta horren nondik norakoa. Hala, banan-banan esplikatzeko da zertan datzan hizketa

berriaren maila edo hiztegi (A, B eta C hiztegiak) bakoitza. Euskarazko bertsio osoan itzultzailearen lana sumatu ere egiten ez badugu (eta horixe da seinalerik onena), azken atal honetan bai, sumatu egingo dugu eta onerako gainera, lan txukuna egin baitu atal honetan, bereziki; hizketa berriko kategoria gramatikal berriak, lexiko-moldaketa berriak eta enparauak lehenengo batean ulergarri suerta daitezten.

Bada, azkenik, azken atal honetaz, ñabardura garrantzitsu bat egin beharra. Iraganean hitz egiten da hizketa berriaz, bai eta hizketa berria finkatzeko egutegiaz ere. Pentsa dezakegu, horrenbestez, hizketa berria ez dela jada existitzen. Eta era berean pentsa dezakegu, ziurra ez bada ere, hizketa berriaren porrotarekin batera, helburu nagusiak ere porrot egingo duela, edo haren aurkako borrokan esperantzak baduela lekurik. Halako zerbait iradoki nahi ote zigun Orwellek?